
EUSKAL ASTEA

Orrelakoetan etxeokak. Errezateko eskatzen dabe ta gabon kantariak bereala asten dira erreguka.

Beste batzuk dei orreri ez kanta ta ez erreza, erantzuten dabe zitalki eta orrelakoetan neska mutillak erdi lotsatuta aldunduten dira.

Geienak abestuteko, kantateko agindu eta orrela jarraitzen dabe eskupekoa artu arte.

Baña ba dagoz beste oitura batzuk.

Etxeetan. oituraz eguneko jatorduak sukaldean egiten dabezanak, gau onetako aparria jan tokian, "komendarean" egin nai izaten dabe.

Aparria astean, etxeko buruak ogi opilla asi ta lenengo kuskurrean kurutzearen ezaugarria egiten dau eta ondoren kuzkur on gorde egiten da urte guztian, arazako kajoitxu baten. Ez dala lizunduten esan eta siniskera dago.

Ogi on bera jausita be, lurrera jausita be, txakurrak ez dauala jaten, esaten da.

Beste batzutan, txakurra amorruek gaixotuten ba dau be, berari emoten yako, amorruek kenduko dau sinistez.

- Gabon gabeen krabeliña lurrean landatu ezkeru, ederra etorten dala be esaten dakie.

Larrabetzuarrak gogoratzen dakie, Gabon gabeen ildakoak etorten dirala sutondora eta sutautsetan lagaten dabezala curen aztarnak.

Gabon kanta jatorrak

Eta Gabon kantak zer?

Or doguz Marijesiak Gernika aldean. Zorionez urtero barrizatzen da oitura. Batzuk Gernikako Marijesiak deitzen dautsez, beste batzuk Urdaibaikoak.

Abenduren amaseian asi eta bederatzi egunetako goizaldetan kantatzen dabez gernikarrak. Danetara 75 estrofa dira. nai ta danak barik, egunak bereiztuta euki.

Lenengo lau egunetan 32 koplak abestuten dira, beste lau egunetan urrengo ogeita-amabiak eta azken egunean azken amaika koplak:

Ogeita laugarrena
dogu Abendua,
desio genduen
logratu genduna.

Musikak be aldatu egiten dira, lau egunetik lau egunetako bertsoekaz batera.

Beste kantu batzuk, esan bardintsuak eukiarren, erri batetik bestera euren lekukotasuna agertzen dabe eta igarten da tradisiño luzea eta tokian tokiko kutsuz egiñak dirala euretariko asko.

Luze jarraitu leike gabon oituretaz jarduten, aberatsa dalako gure folklorea gai onetan. Baña gaurkoz amaitu bearrean nago.

Angula, besigu eta beste janari berezi batzuekin guraririk ez da be, egun oneitan alkar maitasun eta bake garra zaindu dagigun erriaren eta danon mesedean.

ZUBIKARAI'tar AUGUSTIN

GABON OITURAK

Biziak daben aldi eder bat
egiz dogu Gabonetan
mundu tristia poztu zeitean
argia dator izketan;
ni naz bidea munduarentzat
ni naz egia benetan
ni naz bizia gizonarentzat
salbamenaren bidetan.

Aurtxo txikia seaskan dago
Jaungoikoaren Semia
arrokerizko munduarentzat
jazokun arrigarria;
Egille onak ezin izan dau
galduta itzi ludia
askatxo baten agertu dausku
here maitasun guztia.

Ordu-ezkeru euzkotar ona
ezin egon da geldirik
lanez on eiten beartsuari
esku biak zabaldurik;
Gabon aldian baita be ere
beztz janak bialdurik
sendi askori poza damotso
Gabon Jaiak ospaturik

PAULIN